

BESTELAKO XEDAPENAK

LEHENDAKARITZA

2178

EBAZPENA, 2019ko maiatzaren 2koa, Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiarena, kanpo-harremanen eremuan gazteak prestatzeko beken deialdia egiten duena 2019-2020rako.

12/2019 Dekretuak, urtarrilaren 29koak, kanpo-harremanen eremuan gazteak prestatzeko beka arautzen ditu (2019ko otsailaren 1eko EHAA, 23. zk.).

Aipatutako dekretuaren 5.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, bidezkoa da kanpo-harremanen eremuan gazteak prestatzeko beken deialdia egitea, 2019-2020 ekitaldirako. Bekak Lehendakariaren 2019ko Dirulaguntzen Plan Estrategikoan sartuta daude, Lehendakariaren idazkari nagusiaren Ebazpen bidez onartuta, 2019ko otsailaren 14an.

Ondorioz, honako hau

EBATZI DUT:

1. artikulua.– Helburua.

Ebazpen honen helburua da kanpo-harremanen eremuan gazteak prestatzeko hamaika beken deialdia egitea 2019-2020 ekitaldirako.

2. artikulua.– Modalitatea eta beka-kopurua.

1.– Deialdiko beka honako modalitate hauetan banatuko dira:

- a) Europako Gaietako lau beka.
- b) Kanpoan den Euskal Komunitatearen hiru beka.
- c) Kanpo-harremanetarako lau beka.

2.– Eskatzaile bakoitza deitutako beka-modalitateetako bakar batera aurkeztu ahal izango da.

3. artikulua.– Destinoak.

1.– Europako Gaietarako beken onuradunek beraien eginkizunak honako destino hauetan burutuko dituzte:

- a) Bi beka Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusian, Vitoria-Gasteizen.
- b) Bi beka Euskadiren Europar Batasuneko Ordezkaritzan, Bruselan.

2.– Kanpoan den Euskal Komunitatearen beken onuradunek beraien eginkizunak honako destino hauetan burutuko dituzte:

- a) Bi beka Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusian, Vitoria-Gasteizen.
- b) Beka bat Euskadiren Argentina-Mercosurreko Ordezkaritzan, Buenos Aires hirian.

3.– Kanpo Harremanetarako beken onuradunek beraien eginkizunak honako destino hauetan burutuko dituzte:

a) Bi beka Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusian, Vitoria-Gasteizen.

b) Bi beka Euskadiren Txileko, Peruko eta Kolonbiako Ordezkaritzan. Horietako batek Santiagoko Ordezkaritzaren egoitzan burutuko ditu eginkizunak, Txileko Santiagon (Txile); eta, besteak, Ordezkaritzak Bogotan (Kolonbian) duen bulegoan.

4. artikulua.– Zenbatekoa eta ordainketa.

1.– Deialdiko beken programarenguztizko kreditua 216.000 eurokoa da, eta horietatik 151.200 euro 2019 ordainketa-kredituekin bat datoz, eta 64.800 euro 2020ko konpromiso-kredituarekin.

2.– Beken diru-kopurua honako hau izango da:

– Vitoria-Gasteizen burutu beharreko beka bakoitzak 16.000 euro gordin.

– Euskadiren kanpoko ordezkaritzetan edo haren mendeko bulegoetan burutu beharreko beka bakoitzak 24.000 euro gordin.

3.– Jasotako zenbatekoak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Gizarte Segurantzari dagokion araubidearen menpe egongo dira.

5. artikulua.– Eskabideak aurkezteko modua eta epea.

1.– Urtarrilaren 29ko 12/2019 Dekretuan eskatzen diren baldintzak betetzen dituzten pertsonen prozedura honen izapide guztiak eskatu, kontsultatu eta egin ahal izango dituzte, bide presentzialak edo elektronikoak erabiliz.

2.– Eskabideak, erantzukizunpeko adierazpenak eta aurkeztu beharreko agiriak telematikoki izapidetzeko zehaztapenak eskuragarri daude egoitza elektroniko honetan: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta> eta www.euskadi.eus web orrian, deialdien atalean.

3.– Eskaera eskabide-orri normalizatu baten bidez egingo da, behar bezala beteta. Eskaera eredia eskuragarri egongo da aurreko atalean adierazitako egoitza elektronikoan eta web orrian.

4.– Eskaera egin ondorengo izapideak, kanal elektronikoaren bitartez, honako helbide honetan egingo dira. <http://www.euskadi.eus>

5.– Eskabideak aurrez aurre aurkezteko aukeraz baliatu nahi izanez gero, pertsona interesdunek eranskinean agertzen den inprimaki-eredua bete beharko dute. Eredu hori Eusko Jaurlaritzaren web-orrian ere aurkitu ahal izango dute <http://www.euskadi.eus/dirujaguntza/2019/kanpo-harremanen-bekak/web01-tramite/eu/>

Eskabideak helbide honetara zuzendu beharko dira, bekaren modalitatea adieraziz:

Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia.

Lehendakaritza – Eusko Jaurlaritza.

Nafarroa kalea, 2.

01007 Vitoria-Gasteiz (Araba).

Aurreko paragrafoan adierazitako helbidea jarrita, eskabideak honako toki hauetan ere aurkez daitezke: Euskadiren kanpoko ordezkaritzetan, Eusko Jaurlaritzaren Herritarrei Laguntzeko bulegoetan edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako edozein modutan.

6.– Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, deialdi ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

6. artikulua.– Aurkeztutako eskabidean akatsak zuzentzea.

1.– Urtarrilaren 29ko 12/2019 Dekretuaren 9. artikuluan ezarritakoaren arabera, dokumentazioa osatu gabe badago, beka-modalitate bakoitzeko organo instrukzio-egileak eskatzaileari eskatuko dio hamar eguneko epean dokumentazio osagarria igortzeko.

2.– Jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera, epe hori igaro eta eskatutako dokumentazioa aurkeztu ez bada, eskabideari uko egin zaiola ulertuko da; horretarako ebazpen bat eman beharko da aurretik, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan aurreikusitako baldintzetan.

7. artikulua.– Hautaketa-batzordea.

1.– Urtarrilaren 29ko 12/2019 Dekretuaren 11. artikuluan aipatzen den hautaketa- batzordea honako hauek osatuko dute:

– Leyre Madariaga Gangoitik, Kanpo Harremanetarako zuzendariak; batzordeburua izango da. Kargua hutsik badago, titularra ez badago, gaixorik badago edo legezko beste arrazoiren bat badago, Rafael Hueso Vicentek, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiko goi-mailako teknikariak, ordezkatuko du.

– Mikel Antón Zarragoitiak, Europako Gaietarako zuzendariak. Kargua hutsik badago, titularra ez badago, gaixorik badago edo legezko beste arrazoiren bat badago Iñaki Serrano Lasak, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiko goi-mailako teknikariak, ordezkatuko du.

– Gorka Álvarez Aramburuk, Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako zuzendariak. Kargua hutsik badago, titularra ez badago, gaixorik badago edo legezko beste arrazoiren bat badago, Jose Manuel Meaurio Antónek, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiko goi-mailako teknikariak, ordezkatuko du.

– Elena Iturrate Bizkargüenagak, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiko goi-mailako teknikariak; Batzordearen idazkari-eginkizunak beteko ditu. Kargua hutsik badago, titularra ez badago, gaixorik badago edo legezko beste arrazoiren bat badago, Loreto Guzman Fonquerniek, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiko goi-mailako teknikariak, ordezkatuko du.

– Ainara Jauregi Rekondok, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiko goi-mailako teknikariak. Kargua hutsik badago, titularra ez badago, gaixorik badago edo legezko beste arrazoiren bat badago, Eloisa Susatea Azcoitiak, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiko goi-mailako teknikariak, ordezkatuko du.

– Benan Oregi Iñurrietak, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiko goi-mailako teknikariak. Kargua hutsik badago, titularra ez badago, gaixorik badago edo legezko beste arrazoiren bat badago, Andoni Martín Arcek, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiko goi-mailako teknikariak, ordezkatuko du.

2.– Urtarrilaren 29ko 12/2019 Dekretuaren 11.3 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, hautaketa-batzordeak Asier Aranbarri Urzelai Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiko aholkulariaren eta Delia Reina Lechonen Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (HAEE) teknikari espezialistaren aholkularitza izango du; hitza bai, baina botorik ez dute izango horiek.

8. artikulua.– Balorazio-irizpideak.

1.– Balorazio-irizpideak urtarrilaren 29ko 12/2019 Dekretuaren 12. artikuluan ezarritakoak dira.

2.– Eskatzailearen profil akademikoa –ezagutzak eta nazioartean izandako harremanen esperimentziak zehaztuko dute profil hori– bekaren xede den edukietara egokitzen den baloratzeko, proba idatzi bat egingo da eta 15 puntu emango dira gehienez. Proba egiteko eguna eta lekua, alde zuzenetik, eskatzaile bakoitzak emandako posta helbidearen bidez jakinaraziko da.

9. artikulua.– Probaren modalitateak.

1.– Idatzizko proba 15 galderetako test bat izango da, beka-modalitate bakoitzari egokitutako galderekin. Probak 30 minutuko iraupena izango du. Gehienez ere 15 puntu emango dira, galdera bakoitzak puntuazio bera izango du, eta honela banatuko dira:

a) Europako Gaietarako modalitatea:

– Europar Batasunaren erakunde-eremuarekin zerikusia duten 5 galdera.

– Europako egoera politikoari buruzko 5 galdera.

– Europako ekonomiarekin zerikusia duten 5 galdera.

b) Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako modalitatea:

– Euskal etxeen eremuarekin zerikusia duten 5 galdera.

– Euskal emigrazioaren memoria historikoarekin zerikusia duten 5 galdera.

– Euskal diasporako programa instituzionalekin zerikusia duten 5 galdera.

c) Kanpo Harremanetarako modalitatea:

– Erakunde aldeaniztunekin zerikusia duten 5 galdera.

– Nazioarteko egoera politikoari buruzko 5 galdera. Ez da Europari buruzko galderarik izango.

– Nazioarteko ekonomiarekin zerikusia duten 5 galdera. Ez da Europari buruzko galderarik izango.

10. artikulua.– Txostenak.

1.– Bekadunek txosten partzial bat aurkeztu beharko dute, urtarrilaren 29ko 12/2019 dekretuaren 16.2.j) artikuluan jasotzen den ikerlanaren egoeraren eta garapenaren berri emanez. Gainera, amaierako txosten zehatz bat aurkeztu beharko dute aztertutako gaiari buruz, planteatzen dituzten arazoei, konponbideei eta, oro har, bekarekin zerikusia duten interesari buruz.

2.– Txosten partziala bigarren ordainketa jaso baino lehen aurkeztu beharko dute bekadunek, eta hura aurkezteko epea beka hasi eta laugarren hilabetearen azken egunean amaituko da.

3.– Amaierako txosten zehatza aurkezteko epea beka hasi eta hamaikagarren hilabetearen azken egunean amaituko da.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Ebazpen honek aipatzen dituen laguntzak honako xedapenek arautuko dituzte: urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearenak; urriaren 1eko

40/2015 Legeak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak; azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, Diru Laguntzei buruzko Lege Orokorrak; azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onesten duenak; eta urtarrilaren 29ko 12/2019 Dekretuak, kanpo harremanen eremuan gazteak prestatzeko bekak arautzen dituenak.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Ebazpen honek administrazio-bidea amaitzen du; hala ere, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke organo berean hilabeteko epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean. Epeak ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera hasiko dira.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, eta hura argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean. Gainera, denek jakin dezaten www.euskadi.eus helbidean ere argitaratuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko maiatzaren 2a.

Kanpo Harremanetarako idazkari nagusia,
MARÍA ÁNGELES ELORZA ZUBIRÍA.

ERANSKINA

ESKABIDE-EREDUA

Izen-abizenak:

NAN/Pasaporteak:.....

Helbidea:

E-posta:

– Ofizialki aitortuta dauden euskal etxeetako bazkideen kasuan:

Euskal etxearen identifikazioa:

Euskal etxe horretako bazkide-zenbakia:.....

– Beka-modalitatea (aukeratu beka-modalitate bakarra, eta adierazi zenbakien bidez lehentasun-hurrenkera, horren destinoen artean):

A) Europako Gaiak:

Vitoria-Gasteiz (lehentasun-hurrenkera): _____

Brusela (lehentasun-hurrenkera): _____

B) Kanpoan den Euskal Komunitatea:

Vitoria-Gasteiz (lehentasun-hurrenkera): _____

Buenos Aires (lehentasun-hurrenkera): _____

C) Kanpo Harremanak:

Vitoria-Gasteiz (lehentasun-hurrenkera): _____

Txileko Santiago (lehentasun-hurrenkera): _____

Bogotá (lehentasun-hurrenkera): _____

Goi-mailako edo graduako unibertsitateko titulua:

Ikastaroak (50 ordu gutxienez):

Hizkuntzak:

Euskara: (*)

Egiaztatutako maila: B2 C1 C2

(*) Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B1 mailaren baliokide diren euskarazko hizkuntza-tituluak eta -ziurtagiriak aurkeztetik salbuetsirik egongo dira apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren 4. artikuluan xedatutakoa betetzen dutenak. Dekretu hori euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagiriaren bidez egiaztatuzetik salbuesteko da.

2019ko maiatzaren 10a, ostirala

 Ingelesa:Egiaztatutako maila: B1 B2 C1 C2 Beste hizkuntza batzuk:Egiaztatutako maila: B1 B2 C1 C2

ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK:

- NANA edo pasaporteak.
- Eskatzaileak 2019ko urtarrilaren 1a baino lehenago administrazio-egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan zuela egiaztatzen duen errolda-agiria / Euskal Etxeak emandako ziurtagiria, eskatzailea 2019ko urtarrilaren 1a baino lehenagotik bazkide dela egiaztatzen duena.
- Unibertsitateko goi-mailako edo gradu titulua edo, hala badagokio, dagokion homologazioa.
- Curriculum Vitaea, ikasketa-espedientea erantsita.
- Egindako ikasketen ziurtagiri ofizialak eta balio akademikoa dutenak.
- Hizkuntzen ziurtagiri ofizialak eta balio akademikoa dutenak.
- Medikuziurtagiria, non zehaztu beharko baitu bekadunak ez duela bere zereginak eta betebeharrak egoki garatzea galaraziko dion gaixotasunik.

Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, beka-modalitate bakoitzari dagokion instrukzio-organoak aukera izango du urtarrilaren 29ko 12/2019 Dekretuaren 8.3 a), b), c) eta e) artikuluan adierazitako dokumentazioa kontsultatu edo eskatzeko, betiere, dagozkion elkarreragingarritasun-zerbitzuen bidez. Dekretu horrek kanpo harremanen eremuan gazteak prestatzeko beka arautu zituen.

Administrazioak zerga-betebeharrak eta gizarte-segurantzako betebeharrak betetzeari buruzko datuak kontsultatzea edo eskuratzea nahi ez baduzu markatu x batekin laukitxoak:

EZ dut baimenik ematen dagokion instrukzio-organoak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean ditudala kontsultatzeko edo eskatzeko.

Administrazioak bere esku dituen edo beste administrazio batzuek egin dituzten agiriak kontsultatzea edo eskuratzea nahi ez baduzu markatu x batekin laukitxoak:

EZ dut baimenik ematen dagokion instrukzio-organoak, honako dokumentuak kontsultatu edo eskatu ahal izateko: administrazioak dagoeneko bere esku duen agiriak edo beste administrazio batek egindakoak.

ADIERAZTEN DU kanpo harremanen arloan gazteak prestatzeko beka arautzen dituen urtarrilaren 29ko 12/2019 Dekretuaren 2. artikuluko eskakizun guztiak betetzen dituela.

ADIERAZTEN DU eskabidean aipatzen den informazioa, curriculum vitae eta eskaerari erantsitako gainerako dokumentazioa egiazkoa dela eta errealitateari erantzuten diola.

ADIERAZTEN DU ez duela aurrez jaso honelako beste bekarik, edo unibertsitate-titulua duten pertsonentzako bestelako prestakuntza-bekarik, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura.

ADIERAZTEN DU ez duela dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzea eragozten dion zehapen penalik zein administrazio-zehapenik, eta ez duela horretarako legezko inolako debekurik, sexu-bereizkeriagatiko debekuak barne, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrenean ezarritakoarekin bat etorriz.

Lekua eta data

Sinadura